**Zuk zure burua gaztetzat dadukazu, eta egia diotzut nik baino hiruzpalau urte gehiago izan arren, ni baiño gazteago zerala. Zahar naiz, nire hogetamarrak ez badira hain aspaldi kunplitu; baina ez da gaurko kontua; hamabi urte nituenean, orain bezain zahar nintzen; zu berriz, ehun urte kunplitzen dituzunean, orain bezain gazte izanen zera.**

# MAISTRA BATI

**Baionako batzarrean R azentudunaren alde eman zenuen botoa. Nik, hamabost urtekin ba nenkien R doblea erabili behar dela. Zergatik? Gure bibranteen intensidadea zer zen, orduko ikasita nendukalako. Zuk berriz ehun urte betetzen dituzunean (hain luzaroko bizitza ematen badizu Jainkoak —hala biz!), ez duzu ikasiko—, eta ikasteko aleginik ere ez duzu eginen. Horregatik diotsut zu gazte zerala eta ni berriz zahar naizela.**

**Ba dakizu ni noiz zahartu nintzen? Fraka motzekin (eta apretekin, orduko gure oinetako unibersala), kaietan ikatza eta garia eta mendietan fruta eta patatak lapurtzeko premian aurkitu nintzenean (zerbait jan beharko bagenuen etxean). Inolako mutilak ginen, gaitz-esaleak, maleziosoak, gezurtiak, lapurrak. Hola egin ginduzten. Zahar ginen orduan. Konprenitzen duzu? Niri ez zait ezer bizitzan eman. Ez dut dostailu bat inoiz eduki. Eta gero, buru kapaz baten jabe sentitu nintzenean, lehertu arte lan egin nuen. Lanean hasi nintzenetik, zeinbat izanen dira nik oporretan eman ditudan egunak? Esplotatua zan naiz, eta burruka egin dut errespetatua izateko. Eta errespeto hori lortu dut. Ba dakizu zergatik? Nirekin topatu diren guztiek beti jakin dutelako gazte batekin ez zirela topatzen. Eta errespetatu naute.**

**Konpara zazu zure bizitza nirearekin. Begi baten bista eta bestearen erdia galdu dut paperen gainean. Eta 41-an padezitu nuen goseaz ez naiz oraindik ase.**

**Zuk Jainkoagan eta erriagan sinesten duzu. Bai, gazte zera. Ni zahar naiz. Nik bakean eta zuzenbidean sinesten dut. Eta fede hori ez didate inoiz petxotik arrankatuko. Konprenitzen duzu? Hiltzen banaute ere. Eta esperantza haundi bat kabitzen zait bihotzean, egun batean bakeak eta zuzenbideak gure herriaren artean erreinatuko dutela.**

**Zu, maistra, Jainkoari debot eta erriari leial, zurekin perpausa atsegin bat izan nahi dut, hizbide atsegina, ele bizia, mintzaldi frutakorra.**

**Hau nire lehenbiziko gutuna duzu. Nire inguruan gertatzen diren gauzak esplikatuko dizkitzut. Beste batean galdetuko dizut zergatik Rekaldeberriko apaizek ez duten xentimorik pagatu behar bertako urbanizazioagatik.**

**Gure hizbide hau frutakorra izanen da seguru aski. Nik nire zahartasun goiztarra eskeiniko dizut. Eskein zaidazu zuk trukean zure gaztetasun promesgarria.**

**Espero dut ganbioan irabazi eginen duzula zerbait.**

**EPALTZA**

## ASTETIK ASTERA

*Jose Luis Lizundia jaunak berriki horrialde hauetan eman dituen iritziek, adiskide eta lankide gisa behintzat, erantzun bat merezi dute nere ustez.*

*Lizundia'ren asmoa hitz gutxitara biltzekotan, hau esan liteke gutxi gora-behera: Z. ARGIA intelektualegia da, zaillegia da, ez da gure herriarentzako egokia. Beste hitz batez: gehiegi kaletartu da, ez da behar bezin menditarra, ez da "euskalduna".*

*Lizundia'ren hitz berberak erabilliaz: "euskal jolasen txokoa barregarria da... Elgoibar, Azkoiti, zestua. Aizarnazabal, Motriku, ta beste toki batzutan, probak garrantzi aundia dauke... geurea literaturaz beteta, plomua baño astunagoa da... gure erriari literatura eta olako gauzak piper bat ardura deutso". Eta abar.*

*Kera hortako iritziak gaur baiño lehenago ere zabaldu dira gure artean. Izenez aipatuko ez dudan euskaltzale jator eta gartsu batek horixe esan zigun aspaldidanik bere liburu famatu batean.*

*Gaurko euskaldunok, beraz, ez omen dugu ez maite eta ez irakurri nahi ere horrelako idazkirik. Proba gehiago eta liburu gutxiago, hortaz. Egia ote da hori?*

*Oro har, gaurko euskaldun jendea gogoan dugularik, eta ziplo datorren ideia ateratzen utzi ezkero, Lizundia'k egia duela esango genuke: gaurko euskaldun gehienek, zalantzarik gabe, ez dute ez literaturarik eta ez horrelakorik ezer ez ezagutzen eta ez istimatzen ere. Hori horrela da.*

*Baiñan iritziak ongi neurtu ezkero, hau erantzun dakioke Lizundia'ri: Z. ARGIA'k hartu duen bidea; eta aukeratu dituen kaletar arazoak, jakintza-saillak eta egungo gaiak, oso egokiak dira. Gaurkotasuna duelako, xuxen ari da. Gauza bat da eusaldun baserritarra, eta beste gauza bat euskaldun jendea. Zer gera gu euskaldun kaletarrok? Intelektualak? Literatura-zale amorratu mordo bat? Kaletarra izatea eta intelektuala izatea ez dira gauza bera, alajañetan!*

*Orain dala aste batzuk esan nuena berriz esango dut: gure eskuetan dago hizkuntzak nola hiltzen diran eta nola piztutzen diran aztertzea. Gure kasoa ez da batere ulertuezíña, edo iñun antzekorik gabea. Hizkuntzen bizia eta heriotza lege hestu batzuen arabera gertatzen dira, eta ez nolanahi. Lege horiek ikasi egin ditezke, eta ikasi egin beharko genituzke iritziak bota aurretik.*

*Hiriburuez, hiriez, kaleaz, nagusitzen diran hizkuntzak bizi dira. Baserrietan eta mendi-gaillurretan, aldiz, hizkuntzak bizi ez, baiña hil egiten dira. Kaletarren ahoetan nagusitzen diran hizkuntzek, etorkizuna beren alde dute; baserritarren ahoetan bakarrik iraundu nahi dutenak, hil aurreko azken aldian sartzen dira.*

*Aspaldiko euskaltzale suhar batek ederki zion honi buruz orain dala larogei-ta-hamar urte: "euskera goitik galdu da; goitik irabaziko da ere". Nork esan zuen hau? Estanislao Arantzadi nafarrak.*

*Eta hizkuntzen legeak ikasi ezkero, Arantzadi'ren iritzi hori ontzat eman diteke: alegia, hizkuntzak goitik zabaltzen dira, eta piztutzen; eta beheitik lagunduta, hertsitu, makaldu eta hil egiten dira. Hau ez da nere, edo beste baten, iritzi huts bat: hau hizkuntzen kondairak erakusten du argi eta garbi. Ikastea dago.*

*Hiririk gabeko hizkuntza sendorik ez dago munduan. Kalea eta kaletarrak galdu dituzten hizkuntzak, edo azken hatsetan dira, edo laister dira suntsituak eta ahaztuak.*

*Hontan guzian ez dago norberak nahi ala nahi ez duenik ezer. Ez dago begi onez ikusten duen edo ikusten ez duen deusik. Etorkiz baserriko seme izanik neu ere, baserria bihotz guziaz maite dut nik, eta baserritarrak kaletarrak hainbat bai. Baiñan Euskal Herrian eta Bretaña'n, Eskozia'n eta Sakhalin'en, nun-nahi beraz, kaleaz nagusitu diran hizkuntzak gora ari dira; eta kalea galdu dutenak behera. Cornwallis'ko eta Lusazia'ko hizkerak baserrietan hil ziran, ez hiriburuetako kalean.*

*Kaleaz jabetu gabe euskera bizi ditekeala uste dute batzuk halere. Baiñan iritzi onen alde ezin dezateke munduko etsenplurik batere ekar; hizkuntzen gorabeherak ez baitira berek dioten bezela gertatzen, guztiz bestaldera baizik.*

*Z. ARGIA kaletar aldizkari bat omen da. Zer hoberik, ordea? Kaleari buruz lanegin behar dugu batez ere. Kaletarrak dira gure helburu nagusia. Z. ARGIA, beraz, folkloretik urruntzen dalako, eta gaurko kaletar kutsua duen neurrian hain zuzen, bide xuxunetik ari dala deritzat.*

GOIHENETXE

## *Ez gaitezela oitu*

Gizona danera oitutzen da, ziur naiz. Artzaia mendian bizitzen, mariñena itxasoan... Geienak gabaz lo-egiten oituak gaude, baita orain serenoak diranak ere plaza hartu aurretik, orain berriz... Oitutzea dena da oitutzea.

Neroni ere beste guziek bezela danera oitutzen naiz. Zori txarreko kolejio hartan sartua egon nintzanian, aparitako arrautz bat lukainka zati txiki batekin edukitzea aski zen ni pozez betetzeko... Igande arratsaldeko zazpiretan lehiotik dantza tokiko musika entzuten nualarik Errosaio Santua errezatzia normala zen neretzat. Oitu egin nintzen!

Gizonaren adaptatzeko almen hori ordea, ez dakit noraño iritxi behar dan. Gizonarentzat errezago izango da situazio txar batera egitea, situazio obeago bat billatzea baño.

Gauza batera berriz ez dut uste beinere oituko geranik, obekiago esateko ideia batera. Heriotzaren ideiara. Eta hortara bai oitu behar giñazkela...

Denok dekigu hil behar dugula, ezin gerala iñor ere segatik libratu, eta ala ere zenbat kostatzen zaigu hetsitzea. Hori bai, adaptatzeko daukagun almen horren bidez, bereala oitutzen gera hildakoen urrundera.

Tamala da, bainan gizonak duan oitutzeko erreztasun hori, kezkak galtzearen arrazoia izaten da. Lehen ere esan dut, situazio berri bat billatzen saiatu beharrean, situazio eskasarekin oitutzen alegintzea... eta konformatzea (kezkaren amaia).

Ez, gu ez gera oitu behar. Ez dezagun galdu asaldatzeko indarra, jeikitzeko sua. Ez gaitezen lokartu situazio hontan, billa dezagun obeago bat... Ez gaitezen itxi gu esnatzen alegintzen diren hoieri, gure animoa ziztatzen duteneri... Bide hontatik, oitutze honekin, ziztatzalleen ziztaketara ere oitu egingo gera eta gure egorkera munduko onena irudituko zaigu.

Lehen idialista tipo arraro bat zen, ez dut nahi esan orain geiago diranik, bainan orain oitu egin gera gure hartean ideialistak ikusten...

—Hori fubolista bat duk, baloiari ostikoak jotzen zizkiok... Hura ideialista bat, ideial bateri jarraitzeagatik etzekiak zenbat istillutan sartzen dan... Eta lasai, lasai geldituko gera...

Esaten nuen ni ere orain bereala oitutzen naizela. Eta egia da, asko ziztatzen naute lanerako, sakrifiziorako, baiñan fakir baten antzera, ziztaden miñetik azke nago... Gainera ziztatzalleak ez ba-ditut jorratzen...!

Urtero dena da normala... Edo dena iruditzen zaigu normala...

Urtero urtero, nere lagunen bat lau metroko gela batean, argirik gabe bizitzen oitu beharrean arkitutzen da. Azkenaren aurretik, ainbeste joan dire... ¡Laister oporketak pasatzera joten direla irudituko zait...

Lehen gutxienez harritu egiten nintzen, piska bat asaldatu ere bai, mindu... Esan diteke nere modura heroe batzuek egiten nituela. Gutxienez neregatik, nik maitatzen nuanagatik, ni kapaz nintzena baino geiago ematen zutela ikuste nuen... Orain ez... Ain da normala. Oitura!

—Adizak ba-dakik nor «joan dan»? Halako.

—Bai? Nora joan behar duk bihar?

—Zinera.

Halako ez, ez da zinera joango zenbait denboran. Guri bost ajola!

Nik ez dut nahi oitu ordea gertakizun hauekin. Nahi dut nire onetik irten... nere «normalidade» hortatik... Nahi dut sublebatu, sutu... Nahi dut, niregatik burua opaldutako bat galtzean sentitu behar dana sentitu... Justiziaren defentsoreekin egindako zuzengabekerien haurka jeiki...

Batzuentzat gure egokera normala da, bai. Batzuek ez dute konprenitzen beoien zerekoikeriak egindako mundutik aparte ezer izan ditekeanik. Eguneroko lana, fubola, familia... Besterik gabe... Beste ezertan pentsatu gabe... Ni ere horrela ote naiz? Noiz ikusiko ote dugu gizon batzuek, beren bizitza arriskuan jarriaz gu esnatu nahiean dabiltzala? Beste mundu zabalago bat erakutsi nahiean?

Beoiek gu esnatzearren, lana eiten... Ziztatzen...

Nork daki liztorrari bezela ez ote zaien gertatuko? Gu zirikatzeagatik bizitza galtzea?... Onuzkero ez ote da gertatu?... Bizitzaren zati eder bat uztea gutxienez bai...

Urtero nere lagunen bat galtzen dut. Oituko ote naiz? Ez. Ez dut nahi!

Eztenkadetara oitutzen ba-naiz ere, ez nedilla gutxienez liztorraren heriotza ikusten oitu...

SAIZARBITORIA



## IDAZKITZA

**IÑAKI BEOBIDE.—Esker beroenak eman beharrean gera, gure adiskidearen osasunatzaz harduratu diren guzieri.**

**Automobillean zijoalarik, kamioi baten haurka jo zuen, ezkerreko zangoa iru zatitan hautsiaz. Buruan ere ba ditu ebaki batzuek, bainan zorionez garrantzi gutxikoak.**

**Espero dugu laister izango dugula gure hartean, eta bain beharrezkoa dugun zuzendaritzarekin jarraituko duela.**

**Animo Iñaki behar zaitugu!**

* * *

**Hartu dugu Lizundia jaunaren eskutitza. Ikusten dugu zenbai gauza ulertu gabe jarraitzen duzula. Badire Euskalerrian baserritarrak baino zenbait jende geiago. Guk ez dugu idazten euskal irakurleak geitzeagatik bakarrik, euskal irakurleak esnatzeagatik baizik. Gainera... Nork daki guk erabiltzen ditugun gaiakin ez ote dan errezago izango euskal irakurleak ugaritzia?**

**Nik ez nuen "Polipaso Errekalde" zutaz pentsatzen idatzi, aipatzen zenuen euskal gaztedian baizik.**

**Eskerrikasko zure eskeintzagatik, ontuan izango dugu.**

# GAZTE NAIZ